



baliabideak
material de aprendizaje



Hezkuntza-pultsua berreskuratuz

Maite Arandia Loroño

Ikasle kaiera

IKD baliabideak 2 (2011)

KASUAREKIN LAN EGITEKO GIDA: “HEZKUNTZA PULTSUA BERRESKURATUZ”(Martxoaren 17tik -31ra)

2. MODULUA 2. Hezkuntza Lanbideak

Identitate eta Garapen Profesionala eta Komunikazioa eta Hezkuntza harremanak¹

Aprendizaiaren emaitzak

Kasuaren bidez eginiko aprendizaiaren ebaluaketak lorpen hauek izango ditu kontutan:

- R1. Euskal Herriko mugetan hezkuntza lanbide eta praktika profesional ezberdinak kokatu.
- R2. Hezkuntza lanbide bakoitzari zehazki dagozkien arau markoak identifikatu.
- R3. Lanen aurkezpenetan eta formakuntzaren prozesu interaktiboan, komunikazioarekin harremana duten oinarrizko gaitasunak erabili (hitzarturiko ebaluzio irizpideak aintzat hartu)
- R4. Hezkuntza lanbide ezberdinei dagokien identitate profesionala osatzeko beharrezkoak diren osagaiak zehaztu.
- R5. Azalduko egoerari hezkuntza erantzun arrazoitua eraiki.
- R6. Ikaskideek aurkeztutako proposamenak baloratu, beti ere euren bidegarritasuna kontutan hartuz.
- R7. Kasuari dagozkion gaien inguruko pentsamendu eta ideiak talde handian ahoz komunikatu.

Denbora banaketa

Kasua hiru astetan landuko da (martxoaren 17tik 31ra) eta **asteko 6 ordu** presentzial izango ditugu; berauek Identitate eta Garapen Profesionala eta Komunikazio eta Hezkuntza Harremanak gaiei dagozkienak dira. Orduetegi honi, bakarka zein taldeka igaroko duzuen lan denbora (ez presentziala) erantsi beharko diozue: txostenen irakurketa, galderen erantzunak eta talde lana (txikitan zein handitan) sustatzeko egingo dituzuen proposamenak.

Lehenengo astea (osteguna martxoaren 17a eta ostirala, 18a)

Helburuak:

1. Kasua bere konplexutasun osoan ulertu eta presen dagoen desberdintasun gaia (etniagatik), hala nola hezkuntza harreman eta komunikazioa aztertuz.
2. Literatura zientifikoa landu, dokumentu aukeraketa egokia eginaz ondorengo helburuarekin: berauen bitartez hezkuntza sarean dauden jokatzeko moduak

¹Guía para el alumnado para trabajar con el Caso, elaborado por Maite Arandia (Dpto. Didáctica y Organización de la UPV/EHU), titulado: Recuperar el pulso educativo. El caso se ha construido siguiendo la metodología del caso del Tecnológico de Monterrey. Está aprobado por el Centro internacional de casos de esta universidad.

([http://www.itesm.edu/wps/portal?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/migration/GDA2/Guadalajara/Inves](http://www.itesm.edu/wps/portal?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/migration/GDA2/Guadalajara/Inves%20tigaci%20n/)
[tigaci n/.](http://www.itesm.edu/wps/portal?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/migration/GDA2/Guadalajara/Inves%20tigaci%20n/))

- ulertuko ditugu, komunikazio eta hezkuntza harreman prozesuak sortuaz (ikastetxea eta irakasleak, oinarrizko gizarte zerbitzuak eta gizarte hezitzaileak).
3. Ikasketa profesionalean, “método de caso” metodologiaren erabilera ulertu.

Ekintzak:

- a) Martxoaren 17 aurretik, kasuaren irakurketa zorrotza egin, bertan ageri diren lokarri guztiak aztertuz.
- b) Kasuaren amaieran ageri diren galderei erantzuteko (ondorengo taula ikusi) garrantzitsua den informazio gehigarria topatu (Identitate eta Garapen Profesional eta Komunikazio eta Hezkuntza Harremanen txostenak erabili):

Pertsonen konfiantza lortzeko zer egin daiteke? Beste hezkuntza-gizarte agente (udaletxe, elkarte, familia...) ezberdinen babesa kontutan hartu al dezakegu? Hezkuntza entitate eta heziketa langile profesional gisa zer funtzio bete behar ditugu? Zentroa eta komunitatea harremanduko dituen lan proiektu motarik sortu ahal daiteke? Hezkuntzatik zer egin eta nola lagun daiteke ikasle, famili eta ingurune garapenean? Gure errealitatean lagunduko diguten praktika ba al dago beste lekuetan?

Beste gizarte eta hezkuntza agenteekin -nahiak, prodezurak...- nola antolatu genezake harremana eta komunikazioa? Zer ekintza indartu beharko genituzke kultura desberdinetan barneratze elkarbizitza indartzeko? Famili, zentro eta ingurune ezberdinen artean zer komunikazio elkartruke prozesuak garatu ditzakegu? Sarean lan egiteko zein eredu berri indartuko ditugu eta nola?

c) Materialaren irakurketa sistematikoa eta metododuna, horretarako prestatuak dagoen txantiloia erabiliz (ikus 1 eranskina).

d) Kasua ulertzen eta ustezko konponbideak bilatzen lagunduko diguten ideien taldeko txostena burutu, horretarako ideia nagusien aukeraketa eta produkzio truketua egin beharko duzue.

a) Gelako lehenengo saioa baina lehen **bakarkako lana**. BAKARKAKO LANEAN SAIO AURRETIK EMAN BEHARREKO PAUSUAK:

Gelaz kanpo kasuaren irakurketa. Irakurketa, kasuan ageri diren web orri eta harremana duten araudien berrikustearekin osatu behar duzue; lehenik, hezkuntzako arlo ezberdinetan profesionalen funtzioak aztertu eta euren barnean zehazki, komunikazioa eta hezkuntza harremanak (ikastetxe mundua eta adingabekoekin hezkuntza sozialeko lan guneak, hezkuntza behar bereziak, emakumeak ...).

- Irakurketak **aurkezturiko kasua ulertaraziko dizue eta beronen inguruan lanean dabiltzan profesionali ezaugarri zehatzak egotziko dizkiezue** (EISEa ulertuko duzue (“Equipo de Intervención Socioeducativa” udaletxeetan dauden Oinarrizko Zerbitzu Sozialen esku daude), Berritzegunea (Lehen Hezkuntza, Lanbide Hezkuntza, Bigarren hezkuntza eta Helduen hezkuntzako irakasle sareari aholkularitza eskaintzen dion zerbitzua) eta hezkuntza formalari eskaintzen dion laguntza, zentroaren noranzkoak, lan sareak)
- 17ko saioa baina lehen, aurkeztu den arazoa lantzeko, hezkuntza ingurune honetan nola jokatu zenukeen ideien zirriborroa ere egin beharko duzue (azkeneko galderak aintzat hartuaz noski), beti ere giza eskubideak eta etika profesionala irizpidetzat hartuaz.

- *Lan honi eskainiriko orduak kontatu. 6 orduko aurreikuspena egiten dugu.*
- *Martxoaren 17ko saiorako pertsona bakoitzaren lanak jaso. Bakoitza oso ondo identifikatu eta ondoren taldeko azkeneko txostenean gehigarri gisa barneratu.*

b) Gelako saioa: MARTXOAK 17, OSTEGUNA

- Kasuaren bitartez landuko ditugun galdera nagusiak azalduko ditu irakasleak, baita egin beharreko lana eta “método de caso”ko metodologia ere (20 minutu).
 - Gelako ohiko talde txikitan honako lana egin beharko duzue: **kasuarekin harremana duten hezkuntza arlo/gai nagusiak adierazten dituen idatzizko irudi grafikoa sortu (azalduko arazoaren ostean sorturiko hezkuntza eta gizarte arazoa) eta pixkanaka proposatzen dituzuen erantzunak, behin behineko konponbideak (60 minutu).**
 - **Kasuaren irudia eraikitzeo eta konponbideak proposatzeko, bakarkako ikerketan lorturiko informazioa eta gaiaren dokumentazioa aurkeztu.**
 - Aldi berean, DIALNET datu basean oinarritako bilaketak egin ditzakezue eta baita gaiko txostenetan ere (2005-2010 urte bitartean); beti ere landu beharreko arloen inguruan eta galdera honi erantzunaz: kasua lantzeko eta beronen hezkuntza ingurunea ikusirik, lagungarriak dakizkiguen esperientzia eta hezkuntza praktikak beste lekuetan ba al daude? Gaien programen barruan DIALNET web orria ageri da eta beroni esker dokumentu ezberdinak topatu ditzakezue gaia, urtea eta dokumentu mota zehaztuz gero; bestalde, idatzizko eta ahozko erregistroekin nola lan egin ere azaltzen du... APA (ISO) arautegia ere topa genezake (kasuaren 2,3 eta4. Gehigarriak) (60 minutu)
 - Bilaturiko materiala talde txikian banatu beharko duzue, honela hurrengo saio presentzialerako irakurketa osatuko duzue eta zuen lanketa ideia nagusia honakoa izango da: **eskutan dugun arazoari konponbideak topatzeko hezkuntza ideia eta praktika onak bilatu.** Lan hau gelaz kanpokoa izango da.
- c) Presentziala ez den bakarkako lana. Ikasle bakoitzak, taldeak osagarri gisa erabaki duen irakurketa egin beharko du eta bertako informazioa ondorengo taulan jasoko du. (Pentsaturiko denbora: 5 ordu):

Idea nagusia: eskutan dugun arazoari konponbideak topatzeko hezkuntza ideia eta praktika onak. (ikasgaiaren berezko materiala eta Dialnett)			
ITURRI BIBLIOGRAFIKOA/ WEBGRAFIKOA EDO LEGISLATIBOA	LABURPENA	EMAITZAK EDO GOMENDIOAK	KASUARI EKARPENAK:
Erreferentzi osoaren zita egin	Helburu nagusia zehaztu eta lantzen diren gai nagusiak	Kasua ulertzeko emaitza interesgarriak adierazi eta profesional eta beste agenteen artean hezkuntza harremana sustatzeko	Txostenak zer ekarpen emango digu kasuan

		ideia on eta hezkuntza praktikak bilatu; baita ere, profesionalen eta famili-haurren arteko komunikazio bideen ulermena errazten duten prozesuak aztertu. Zita literarioak ipiniz gero, orriak zehaztu.	
--	--	---	--

Pertsona bakoitzak osatzen duen fitxa taldearen txostenean gehigarri gisa barneratuko duzue.

d) Gelan 3 orduko saioa: MARTXOAREN 18, OSTIRALA

- Gelaz kanpo landuriko ideiak talde txikian bateratuko dira, ondoren talde handian aurkeztuko dituzue (ordu 1).
- Talde handian sortu dituzuen kasuarekiko irudi ezberdinak aztertuko dira, arazoaren xedea lantzeko ideia nagusiak aintzat hartuko dira eta baita praktika onak ere. Bertan azalduko diren konponbide batzuen gainean lan egingo dugu ondoren (2 ordu).
- Gelaren dokumentu bateratuan jasoko ditugu lanketak, *in situ* (Identitate eta Garapen Profesionalean osatzen ari garen koadernoan barneratuko duzue irudia)

Bigarren astea

Helburuak:

- Hezitzaile mota ezberdinak kokatu, euren funtzio eta harremanak gaurko hezkuntza ingurunean zehaztu, non hezkuntzak garapen sostengarria duen helburu.
- Gaur egungo hezkuntzaren aldaketak ulertu eta barneraketa sustatzen duen hezkuntza lortzeko aldagai ezberdinak aintzat hartu (generoa, etnia, mailak...)

Ekintzak:

- a) Storytelling: Inés Picóren ekarpenak, Bidegintzako gizarte hezitzailea Alde Zaharreko EISEan.
- b) Ideia nagusiak topatzeko aipaturiko irakurketak burutu.
- c) Irakurketa zuzendu duten galderak oinarritzat harturik ideiak zerrendatu eta antolatu.
- d) Ideien aukeraketa eta lanketa bateratua.

a) Gelako saio aurreko bakarkako lana:

- Artikulu irakurketa: Hargreaves, Andy y Fink, Dean (2006). Estrategias de cambio y mejora en la educación caracterizadas por su relevancia, difusión y continuidad en el tiempo. En *Revista de Educación*, 339, pp. 43-58

- Gizarte Hezkuntzaren dokumentu profesionalizatzaileen irakurketa gehigarria, kasuari dagozkion aldagaiak jasoaz (24-32 eta 43-45 orriak)

(Definición, Código deontológico, Competencias del educador y educadora social. <http://www.eduso.net/archivo/index.php?c=27>)

Irakurketa ostean honako galderak erantzun (Storytellingean eginiko lana ere abiapuntutzat hartuz): **inklusioa helburu izanik eta euren konfiantza irabaziz** hezkuntzan zer egin eta nola lagundu ikasle, famili eta euren ingurunearen garapenean? Beste

agente hezitzaileekin zein harreman eta komunikazio bide- printzio- prozedura-proposatu ditzakegu?

A) Storytelling (Lanbidearen funtzio eta topatuko ditugun eskakizunak ulertzeko historia kontaketa) **MARTXOAREN 21, ASTELEHENA**. Inés Picóren aurkezpena, gizarte hezitzailea: lanbidearen egungo egoera eta batez ere, hezkuntza harreman eta komunikazio prozesuak ulertzeko. Familia, adingabetu eta eskolarekin ageri diren hezkuntza harremanen inguruko bere ikuspegia azalduko du: zer egiten dute? Zeintzuk dira lan guneak? Nola egiten dute? Agente ezberdinekin komunikatzerakoan zer arlo zaintzen dituzte? Zer arazoei aurre egin behar die?

Inés Picóren aurkezpena: ikastetxe munduarekin duten harremana nola ulertzen duten eta nola dauden azalduko digu eta ADINGABETU, FAMILI, IKASTETXE INGURUNE ETA BESTE PROFESIONALEKIN (euren komunikazio eta harreman kontzeptua argituko du eta euren errola ideia horiek aintzat hartuaz) harreman inguruak nola sortzen dituzten ere azalduko digu.

Aurkezpenean harturiko oharretatik abiatuz eta aurreko irakurketak aintzat hartuz lehen aipaturiko bi galderak erantzuten joan. Badaezpada bi galderak berriz aipatuko ditugu: **inklusioa helburu izanik eta euren konfiantza irabaziz** hezkuntzan zer egin eta nola lagundu ikasle, famili eta euren ingurunearen garapenean? Beste agente hezitzaileekin zein harreman eta komunikazio bide- printzio- prozedura- proposatu ditzakegu?

Lanketa hau, taldeak (txikian zein handian) klasez kanpo egin beharko du eta **MARTXOAREN 24**rako (osteguna) dena prest izan beharko duzue.

b) Taldeen ekarpenen aurkezpena. **3 ORDU, MARTXOAREN 24, OSTEGUNA**

- Galdera bakoitza taldean aztertuko dugu. Erreferentzi taldeen artean 4 talde sortuko ditugu, irakurketa eta Storytellingaren lana gidatu duten galderak erantzuteko helburuarekin.

- Talde bakoitzaren ekarpenak talde handian aurkeztu eta ondoren, taldeko txostena sortu.

Talde handian lan egingo dugu. Taldean 3 multzo handi banatuko dira galderen inguruko erantzunak trukatzeko eta paretan dauden paperetan idazten joango zarete. Talde bakoitzeko bozeramalea aukeratu behar duzue eta ekintzaren amaierako txostena osatuko duten bi pertsona (20 minutu). Talde bakoitzaren erantzunak talde handian aurkeztuko dira, beronen bitartez taldeko dokumentua sortuko dugu “Hezitzaile izate- irakasle, gizarte hezitzaile- gaur egungo gizartean, erronka handia da” (40 minutu). Taldeko lana osatzeko sei pertsonak elkartu beharko dira eta berau gelako korreo orokorrera bidali beharko duzue (wiki erreminta ere erabili dezakezue moodleen). **Identitatearen lehenengo sorturiko irudiarekin erkatu.**

BERRERAIKITZEA EGINGO DUGU

Hirugarren astea

Helburua: kasuan aurkezten den arazoari emandako hezkuntza erantzunak sakonki landu eta kontzientziatu, hezkuntzan erabaki prozesuen ondorioen inguruan. **Activdades:**

a) Esku-hartze proposamen ezberdinak pentsatu;

b) Proposamen ezberdinen inguruko eztabaida: “aldeko” eta “aurkako” aldagaiak argudiatuz;

- c) Hartuko dugun erabakia adostu,
d) Adosturiko erabakia, benetako proposamenarekin erkatu.
- a) Hirugarren sesio aurreko bakarkako lana, ez presentziala. Ikasleek kasua berriro irakurri behar dute, beti ere kideen iritziak aintzat hartuaz; ondoren jarraian datozen galderak erantzun behar dituzte: **Zer puntutaraino kontutan har dezakegu beste hezkuntza eta gizarte agenteen – udaletxe,elkarte,familia...-laguntza? Hezkuntza entitate eta profesional gisa zein funtzio bete behar ditugu? Zentroa komunitatearekin harremanduko duen lan proiekturik sortu al daiteke? Beste agente hezitzaileekin harremantzerakoan zein ikuspegi komunikatibo zaindu behar ditugu?** (ordu bat eta erdi)
- b) **MARTXOAREN 29AN, ASTEARTEA, ADELAIDA ETA NIEVESEKIN SAIOA. 3 ORDU.** Gelan ordu eta erdiko saioa, presentziala (saio magistrala). “Storytelling” estrategia sortzailea erabiliko dugu, beronen helburua honakoa da: *langileen esperientzia ezberdinak ezagutzea, ideia berriak garatzeko eta erabakiak hartzean arriskuak barneratzeko.* Horretarako Nieves Saratxaga gonbidatuko dugu eta martxan jarri zuen ideia, bere garapena denboran, topatu zituen eta topatu ditzakeen arazoak antzeko ideiak lantzerakoan azalduko dizkigu. Modu honetan ikasleak hezkuntza erabakiak hartzea konplexua dela ulertuko dute eta hezkuntzan martxan jartzen diren ekintzen ondorio barnerakorrak (agian ez dira barnerakorrak) aztertuko dituzte.
- c) **MARTXOAK 31, OSTIRALA. 3 ORDU.** Gelan ordu eta erdiko saio presentziala, gelan praktikak eta talde handian magistrala. 5 pertsonako taldetan ideiak bateratuko dituzue ekintzarentzako konponbidea proposatuz (beste ikasle guztien aurrean defendatu). Bitartean, gainontzekoek proposamenen aldeko eta aurkako aipamenak egingo dituzte. Azkenik, ekintzetako bat hautatuko duzue (akordio bidez).

Sortuko diren galderak:

1. **Zer puntutaraino kontutan har dezakegu beste hezkuntza eta gizarte agenteen – udaletxe,elkarte,familia...- laguntza?**
2. **Hezkuntza entitate eta profesional gisa zein funtzio profesional bete behar ditugu?**
3. **Zentroa komunitatearekin harremanduko duen lan proiekturik sortu al daiteke?**
4. **Hezkuntza aldetik zer egin daiteke eta nola lagundu dezakegu ikasle, famili eta euren ingurune garapenean eta konfiantza irabaztean?**
5. **Gure ingurunean lagunduko diguten eta ideiak emango dizkiguten beste hezkuntza praktika barnerakoirik ba al daude?**
6. **Egoera honi aurre egiteko Adelaida, Nieves eta gainontzeko irakasleen tokian, zer egin dezakezue? Zer ekintza hezitzaile indartu daitezke?**

Nola antolatuko ditugu beste hezitzaile eta gizarte agenteekin harreman eta komunikazioa –nahiak, prozedurak...-?
Kultura ezberdinen artean barneratze elkarbizitza bultzatzeko zer ekintza sustatu daitezke?
Zentroko familia eta ingurune artean zein hartu-eman komunikatibo prozesu garatu daitezke?
Sarean lan egiteko zein bide berri eta nola indartu daitezke?

KASUAREN INFORMEA (GEIHENEZ 10 ORRI, gehigarriak kontatu gabe)

Sarrera

Kasuaren garapenean jarraituriko prozesua

Sorturiko konponbidea, ekarpen teoriko eta esperientzialekin erkatuz.

Ondorioak

Kasuaren metodologia eta pertsona-talde bakoitzak jarraituriko ikaste prozesua ebaluatu.

Gehigarriak

- **Kronologikoki, gelan barruan zein kanpoan egin diren bakarkako eta taldekako lanak barneratu.**
- **Presentzialak ez diren lanetan igaro dugun denbora kontabilizatu eta erantsi atal honetan.**

1. ERANSKINA Informazio osagarria jasotzeko txantiloia, bai gaietako txostenetik eta baita DIALNETetik jasotako informazioa jasotzeko

Idea nagusia: eskutan dugun arazoari konponbideak topatzeko hezkuntza ideia eta praktika onak. (ikasgaiaren berezko materiala eta Dialnett)			
ITURRI BIBLIOGRAFIKOA/ WEBGRAFIKOA EDO LEGISLATIBOA	LABURPENA	EMAITZAK EDO GOMENDIOAK	KASUARI EKARPENAK:
Erreferentzi osoaren zita egin	Helburu nagusia zehaztu eta lantzen diren gai nagusiak	Kasua ulertzeko emaitza interesgarriak adierazi eta profesional eta beste agenteen artean hezkuntza harremana sustatzeko ideia on eta hezkuntza praktikak bilatu; baita ere, profesionalen eta famili-haurren arteko komunikazio bideen ulermena errazten duten prozesuak aztertu. Zita literarioak ipiniz gero, orriak zehaztu.	Txostenak zer ekarpen emango digu kasuan

Lanak	Bakarkako denborak	Taldeko denborak
Kasuaren lehenengo irakurketa eta kasu metodologiaren irakurketa		
Txosten eta DIALNETen informazio bilaketa		
Irudiaren sorkuntza		
Artikuluaren irakurketa		
Txosten profesionalizatzailen irakurketa		
Kasuaren bigarren irakurketa		



Arandia, M. (2011). Hezkuntza-pultsua berreskuratuz. <http://www.ikd-baliabideak/ik/lopez-11-2011-1-ik.pdf>



Reconocimiento - NoComercial – Compartir Igual (by-nc-sa):No se permite un uso comercial de la obra original ni de las posibles obras derivadas, la distribución de las cuales se debe hacer con una licencia igual a la que regula la obra original.